

panpano **ZIRI**

2021eko abendua

aresoko aldizkaria



NAZABAL ESKOLAK 100 URTE



JOKIN BARANDARAIN ERLEZAINA

PATXI TOLOSARI ELKARRIZKETA

GARAI BATEKO ARESO

DENBORAREN ATZAPARRETAN GALDUAK

ARESOARREI GALDEZKA

DENBORA-PASAK

ETA GEHIAGO...

zenbaki honetan



Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:
Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Uxue Goikoetxea, Eneritz Iraola eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.

Argazkiak:
Nafarroako museoko bilduma,
Irigarai Alduntzin familia.

LG NA 2710-2017

AURKEZPENA 3

**NAZABAL ESKOLAK
100 URTE BETE DITU**

4-13

**ELKARRIZKETA: JOKIN
BARANDARAIN ERLEZAINA**

14-5

ELKARRIZKETA: PATXI TOLOSA

16-19

GARAI BATEKO ARESO

20-23

**DENBORAREN ATZAPARRETAN
GALDUAK**

24-25

ARESOKARREI GALDEZKA

26

DENBORA-PASAK

27

MOTZEAN

28



Nazabal eskolak 100 urte

100 urte eginen ditu Aresoko eskolak 2022an. Bada zerbait. 100 urtetan zenbat aresoar pasa den eskolatik, eta 100 urtean zenbat bizipen eta zenbat gertakari! Handik pasatako guztiak kontatutakoarekin aldizkaria ez, zenbait liburu mardul ere osatuko genituzke.

Herriak bizirik mantentzeko lagungarri bikaina izaten dira eskolak. Baita Areson ere, noski. Instituzio garrantzitsua da Nazabal ikastetxea gure herrian eta, horregatik, 100 urte egitera doala ikusita, Panpanoziriren 6. zenbakian toki handia ematea erabaki dugu.

Nazabal eskolaren historia laburtzen saiatu gara, sortu zen garai hartatik gaur-

ko egunera arte egin duen ibilbidea azalduz, denboran zehar gertatu diren aldaketa nagusiak jasoz, aspaldiko eta ez hain aspaldiko protagonisten testigantzak bilduz, hori dena ilustratzen duten irudiak berreskuratuz...

Bistan denez, 1922. urtean eskola sortu zenetik gaur arte gauzak ikaragarri aldatu dira, hura beste garai bat zen, oso desberdina. Badago, nolana ere, dena lotzen duen hari bat: aresoarrak. Aresoarrak izan dira bertako eskolako ikasleak, hezkuntza bertan jaso dutenak, eta familia bakoitzeko belaunaldi ezberdinak pasa dira hortik, bakoitza zego-kion garaian.

Hori guztia kontatzen saiatu gara, berraz, baina ez da hori bakarrik Panpanoziriren zenbaki honek dakarrena: Jokin Barandain eta Patxi Tolosarekin ere hizketan aritu gara, eta kontu interesgarri askoak jaso ditugu haien ahoetatik.

Irudiek ere, ohi bezala, toki garrantzitsua dute gure aldizkarian. Garai bateko Areso gogoratzen lagunduko diguten argazki zaharrak, eta garai bateko tresna zaharrak gogoratzen lagunduko digutenak.

Eta, horiez gain, zenbaki hau osatzen duten gainerako atalak: aresoarrei egindako galderak nahiz haiek emandako erantzunak, eta denbora-pasak. Zuen denen gustukoa izanen delakoan, on egin.

Nazabal eskolak 100 urte bete ditu



1920ko nesken eskolako ikasle eta irakasleak.

Eskolako paretetik hitz egingo balute, zenbat bizipen kontatzeko ehun urtean... Milaka izan dira bertan ibili diren ikasle eta irakasleak. Eraikinarri bizia eman diotenak. Lau paret horiek izan dira gizartean emandako aldaketan lekuko; agian, baita eragile ere. Ehun urte askorako ematen dutenez, eskolaren historia laburtu nahi izan dugu datozen orrialdeetan. Ahoz aho zabaldukoak, sutondoan edo mahaiaren bueltan kontatu edo entzundakoak, mimoz gogoratzen direnak edo ahaztu nahi direnak, bitxikeriak, protagonista izan ziren haiek kontatu dizkigutenak... denek dute tokia. Denen artean osatzen baita eskolaren historia. Egunez egun, istorioz istorio idazten segitzen duguna.

Herriari egindako oparia

Eskolari kanpoko aldetik begiratze hutsa nahikoa da ohartzeko berezia dela. Ez du garai hartan hemen ohikoak ziren baserri edo eraikinen antzik eta erdi ezkutuan badago ere, ez da oharkabean

pasako ezkilaren azpian dagoen gizonetzko baten irudia eta izena: Domingo Nazabalena. Kubara bizi berri baten bila joan eta sorterria ahaztu ez zuen haren lekuko da eskola, Ameriketara egindako diruarekin herriari egindako oparia baita. Halaxe azaldu zion Ageda Treku Zubirik bere bilobari 1999an egindako elkarrizketan: "eskolak Aresoko seme batek egin

zitzen, Domingo Nazabalek. Erretratoa hantxe dago ezkilaren azpian. Hemengo semea zen, hemendik hara, Kubara joan eta gero etorri zena".

Testigantzarik zaharrena

Bizi izan balitz, 105 urte beteko zituen Agedak eta grabazio zaharrei tiraka, berea izan da jaso dugun testigantza zaharrena.



DOMINGO NAZABAL

Domingo Nazabal Leicegoyena Areson jaio zen 1860an. 1876an iritsi zen Kubara, hamasei urte zituela, eta Cienfuegos finkatu zen. Bertan bizi izan zen 1926. urtean hil zen arte. Kubako hainbat jarduera ekonomikotan inbertsioa egin, elitean sartu eta errekonozimendu sozial nabarmena izatera iritsi zen, bertako funtzio sozial, militar eta politikoan karguak izatera pasatzeraino. Ameriketara lortutako diruaren hainbat eraikin egin zituen herrian.

Eskola berriko lehenbiziko ikasleetako bat izan zen eta ongi gogoan zuen aldaketa: "orain gure etxea dagoen tokian genuen eskola ttiki bat eta eskola berriak egin zituztenean hara pasa ginen. Bi eskola egin zituzten; mutilak batean eta neskek bestean, bi eskolak beren maisu-maistraren etxeekin. Mutilek trinketea zuten fronton itxurekoa, eta neskek berriz trinkete soile, neskek ez baitziren pilotan ibiltzen".

Irakasleak ere ez zituen ahaztuak: "izan genuen maistra bat marabilla bat, Etxe txuriko Mari Ros eta horien amona zen eta gizona ere maisue zuen. Maisuarekin ezkondu zenen hasi zen maistra lanetan baina edozein ikasitako maistra baino hobea zen. Harren alumnak izugarritzko eskola hartu zuten. Laboretan partikularra izandu zen, sobrekamak, maindare bordatuak...". Horretaz gain, "kuentak ikasten genituen, historia de España, historia sagrada, geografía eta urbanidad. Doktrina egunero, jaien ere bai".

Ezkil hotsak sarreran

Goizeko bederatzietan hasten zituzten eskolak eta, azken urteetan isilik badaude ere, eskolan oraindik ikus daitezkeen ezkilak jota adierazten zuten eskolara sartzeko ordua zela: "goizean hiru ordu, 09:00etatik 12:00etara eta arratsaldean bi izaten genituen: 14:00etatik 16:00etara". Egu-

nero eguerdian herriko apaizen bisita ere izaten omen zuten: "denbora hartan bi apaiz ziren herrian, bat jubilatua herriko semea eta parrokoa. 12:00etan hantxe eskolara jeisten ziren beraiek doktrina ematera. Hain erlijiosoak ziren, urtero Jesusen bihotzaren nobenara eskola orduerdi bat lehenago bukatu eta maisu maistrarekin igotzen ginela". Egunerokoan nabari zen erlijioak eskolan bertan zuen indarra; hala azaldu zuen Agedak: "eskolan Santo Kristoa egoten zen erdi-erdian, gurutzea eta erregearen erretratoa ere bai. Eskolan sartzeko orazioa egiten genuen, gurutze santua egin eta ateratzerakoan berdin".

1936ko gertakaria

Urtetan mantendu zen Agedak azaldu bezalaxe eskolaren jarduna, baina Gerra Zibila ere iritsi zen Aresora eta utzi zuen arrastoa eskolan. Hain juxtu, duela gutxira arte hauts artean gordea zegoen gertakari baten berri izan dugu aurten. Azken aldian Nafarroako Arxibo Historikoak gerra zibileko zigorren espedienteak ireki ditu eta bertan ikusi dute Nafarroako Hezkuntza sailak Aresoko maisu-maistrak zigortu zituela beraien euskaltzaletasunagatik 1936ko urriaren 16an. Mutilen irakaslea (Juan Erentxun Onzalo) eta nesken irakaslea (Martine Elisabete Maiztegi Arrizabalaga) soldata murriztapenarekin

AGEDA TREKU ZUBIRI 20ko hamarkadako ikaslea

"Bi eskola egin zituzten mutilak batean eta neskek bestean. Mutilek trinketea zuten fronton itxurekin, neskek trinkete soile, ez baitziren pilotan ibiltzen"



eta herritik kanporatzearekin zigortuak izan ziren. Aresoko herriak, ia bere osotasunean, bi irakasle zigortuei eman zien babesa. 260 sinadura agertzen dira, alkaterean eta apaizaren sinaduretatik hasita. Herri ia osoa irakasleen errugabetasunaren alde agertu omen zen. Irakasleetako baten seme-alabek aresoarrei eskerrak emateko bidalitako gutunaren ondotik izan dugu gertakariaren berri eta udaletxean ikus daiteke orduko egunkari batek jaso zuen berria eta sinatzaile guztien zerrenda.

Gerra ondorena

Gerra bukatu eta luzea izan zen bere itzala. Frankoren diktadurak urtetan izan zuen kontrolpean hezkuntza sistema osoa, Falangearen doktrina inposatu zen, eta ikasleek egunerokoan ere nabaritu zuten. Eskolak bitan zatituta segitu zuen, nesken eskola orain eskola dagoen zatia zen eta mutilen eskola berriz Pake-toki elkarte dagoen tokia. Parkea ere pareta batek zatitzen zuen bitan eta neskek eta mutikoek ez zuten eskola garaian elkarrekin harremanik izaten. Garai horiek bizitzea egokitu zitzaizkien ez dituzte ahaztu gazteleraz hitz egin beharrak eragiten zizkien burukominak, argizaria hartuta norbere mahaia garbitzen pasatzen zuten denbora, irakasleren baten zigor gogorrak, sua pizteko txandaka etxetik eramaten zuten zotza... eta liburu bat idazteko adina emango luketen pasadizo eta abenturak.



1950eko hamarkadako mutilen eskolako ikasle eta irakasleak.

Neska-mutilak elkarrekin

1970ean indarrean jarri zen Villar Palasi-ren Hezkuntza Lege berria. Horrek haur guztiek oinarritzko heziketa komuna jasotzeko bidea ireki zuen sei urtetik hamalau urte bete arte. Neska eta mutilak elkarrekin eta eskolaren egituraren aldaketa ekarri zuen horrek; orain eskola dagoen tokian hasi ziren eskola ematen eta beste aldean Pake-Toki elkarteak sortu zuten.

1980ko hamarkada hasieran klaseak gaztelaraz ematen zituzten eta bost kintu egoten ziren eskolan gutxi gora behera. Orain eskolaren goiko solairua dena bakarrik zen erabilgarri, sarreran pertxero batzuk zeuden eta solairu osoko gela bakarra zen, haur guztiak batera egoten ziren irakasle batekin. Gelaren erdian estufa borobil bat zegoen tximinia goraino zuena eta egunero sua pizten zuen irakasleak. Egurra ikuilu xaharrean egoten zen (orain beheko solairua denaren zati bat, oraingo atzekaldeko patiotik zuen sarrera) eta ikasleak arduratzen ziren askotan egurra ekartzeaz. Eskolaren ezker aldea (oraingo sarrera eta soinketa gela) eskuin aldearen berdina zen (trinketea) eta hor aritzen ziren pilotan eta bestelako jolasetan. Oraingo trinketea itxita egoten zen, barruan udaletxearen egurrezko piketeak egoten ziren eta ate batez itxita egoten zen eta atzekaldean patio zabala zegoen.



1950eko hamarkadako mutilen eskolako ikasleak.

Eskolan euskaraz

1985. urtean aldaketa nabarmena izan zen. Mertxe Amondarain irakaslea etorri zen eta berak klaseak euskaraz ematea proposatu zuen. Gurasoek gustura hartu zuten proposamena eta ordura arte gaztelera nagusi zen esparrua egunez egun euskarak irabazi zuen.

Urte hartan eskolan hasitako lau urteko haurrak 5. maila egin arte geratu ziren Aresoko eskolan. Guraso Elkarteak ere garai hartan sortu zen. Irakaslea Pake-toki

elkarteak dagoen gaineko pisuan jarri zen bizitzen bere familiarekin eta 10 urte egin zituen Areson. Ordura arteko irakasteko modua errotik aldatu zuen. Proiektu asko eta mota askotako ekintzak egin zituzten (bertsolaritza, irratia grabatu, herri osoan salduko zuten aldizkaria sortu, antzerkiak prestatu eta herri ezberdinetara joan emaldiak egitera... ateraldiak ere inguruko eskola txikiak ikasleekin egiten zituzten (Ezkurra, Ituren...).

Eraikinean azken aldaketak

1990. urtearen bueltan, eskola unitarioa izatetik unitate desberdinez osatutako ikastetxea izatera pasa zen Nazabal Eskola. Ordura arte gela bakarra eta irakasle bakarra izaten zena, bitan zatitu eta bi gela osatu zituzten. Eraikinean bertan pareta bat altxatu zuten banaketa egiteko. Bi irakasle zuten ikasleen ardura eta ikasgai guztiak beraien ematen zizkieten.

Orain dela 25 bat urte gutxi gorabehera, gainerako obra egin zen (goian distribuzioa aldatu eta behean, haur hezkuntzako gela dagoen tokian, soinketa gela egin zen, eta lehen zikloko gela dagoen tokian liburutegia jarri zuten). Guraso Elkartearen bidez parkea ere berritu zuten. Ikasleak hasieran Leitzara joaten hasi ziren saio batzuk ematera (inglesa eta soinketa) eta ondoren espezialistak Aresora etortzen hasi ziren.



1980ko hamarkadan, neska-mutilak elkarrekin.



Gaur egungo eskola

Gizartean eman diren aldaketen isla da gaur egungo eskola. Berdintasunean, baloreetan... hezten duen eskola. Hezkuntza Departamenduak urtero zehazten du eskolak izango duen unitate kopurua. Ikasle kopuruaren arabera egiten da banaketa eta horrek zehazten du irakasle kopurua ere. Gaur gaurkoz, 29 ikasle daude Nazabal Eskolan, hiru unitatetan banatuta: Haur Hezkuntzako talde bat eta Lehen Hezkuntzako bi talde. Banatuta, baina elkarrekin. Horixe zen, duela bi urtera arteko dinamika. Eskola txikiek duten bereizgarria izaten baita ikasleen arteko elkarlana eta hartu-eman. Zoritxarrez, azken bi ikasturteetan, COVID-a tarteko, eten behar izan duten elkarlana. Ea burbuilak, maskarak... alde batera utzi eta laster ospatzerik duten elkarrekin mendeurren borobila.





MARIA JESUS ZABALETA

1965ETIK 1968RA ARESON IRAKASLE

"Ikasle asko eta adin tarte handikoak izan arren moldatzen ginen"

Irakaskuntzan hasi berritan iritsi zitzaion Maria Jesusi Aresoko eskolan irakasle izateko aukera. Ez ziren garai errazak, ikasle kopurua ere ez zen edonolakoa... baina zailtasunak zailtasun, ilusioz aurre egin zion erronkari. Garai haiek nola oroitzen dituen ikusita, irakatsi bezain beste ikasi zuela pentsa daiteke.

Noiz hasi zinen Areson lanean?

1965eko irailean, hemeretzi urterekin, hasi nintzen Aresoko eskolan. Hiru kurtso egon nintzen, 1968ko irailera arte. Nesken eskola eta mutilena banatuta zeuden eta eskola unitaria zenez, lautik hamalau urtera arteko ikasleak elkarrekin egoten

ziren. Berezitasuna ere bazuen eskolak seitik hamabi urtera arte, eskola derrigorrezkoa zen tartean, neska-mutilek ezin zuten elkarrekin ikasi, baina lau urtetik sei urtera artekoak eta hamabitik hamalaura artekoak elkartzeko aukera ematen zuten.

Nola moldatzen zineten?

Astelehenetik larunbatera izaten zen eskola, ostegunetan jai izaten zen eta larunbatetan eskola garbitzen genuen. Genituen bitartekoekin ezin zen milagro handiegirik egin. Unitaria izatearekin hiru entziklopedia izaten genituen lau urtetik hamalau urtera arteko tartea betetzeko. Entziklopedia denetik izaten zen, marrazkiak,

galderak... Batzuei esplikatzan zenien bitartean besteek lanean egon behar zuten eta nola edo hala moldatzen ginen. Hogeita zortzi ikasle inguru izaten genituen gure ardurapean.

Anekdotaren bat gogoan duzu?

Akordatzan naiz Josetxo Onsalok pizarri- na irentsi zuela. Etorri zitzaidan Izaskun Eraso esanez: 'señorita señorita Josetxo se ha tragado el pizarrín'. Joan nintzen beregana eta galdetu nion non duzu pizarri- na? eta tripa seinalatu zidan. Orain barre egiten dut, baina orduan... kristoren sustoarekin, hartu eta bere etxera joan nintzen eta ez dut sekula ahaztuko amak nola esan zidan, 'lasai, lasai, sartzen dena ateratzen da eta'.

Eraikinaz gogoratzen zara?

Eraikina zen ikaragarri ederra. Oso handia, tetxu altuak, leiho ederrak bi alde- ta... Fallo bakarra zuen: hotza. Eskola hura toki epelxeago batean edo berogailu on batekin izanen zen marabilla bat. Eskola berotzea zaila zen eskolaren tamainagatik. Egurrezko estufa izaten zuen erdi-erdian, tximinia goitik behera eta egurraren ar- dura izaten zuten gurasoek. Batzuk bota, besteak txikitu. Estufa piztea maisuen la- na zen eta akordatzan naiz estufa pizten komeriak eta gimnasia egiten ibili izana berotu nahian. Egurra ikaragarri lehorra bazen segituan hartzen zuen su baina ez bazen izugarri ona eskola berotzerako denbora dezente behar izaten zen.

Nor arduratzen zen eraikinaren man- tenuaz eta eskola materialaz?

Materiala erosteko dirua estatuak ematen zuten. Laguntza hau minimoa izaten zen, 300 bat pezeta izaten ziren urte guztira- ko. Akordatzan naiz eskolako azken mai- suari inspektoreak nola esan zion umeek maila bakoitzeko liburuak behar zituztela eta hark nola erantzun zion: 300 pezete- kin hori erostea ezinezkoa zela.

Zer ikasgai erakusten zenituen?

Matematika, lengüaje, geografia, historia eta erlijioa, denak erderaz. Derrigorrezkoa zen erderaz izatea eta burutik pasa ere ez zitzaizun egiten beste aukera bat izan zi-



1960ko hamarkadako nesken eskolako ikasleak eta irakaslea.

tekeenik. Erlijioaren pisua handia zen oso eta asignatura bat zen. Falangearen doktrina erakutsi beharra izaten genuen. Parretan gurutzea egoten zen zintzilik eta Franco eta Jose Antonio Primo de Riveraren erretratuak, orduan ez zegoen erregerik. Laboreak ere erakusten genituen josten, gantxilloa...

Kontrolik bazegoen?

Gutxienez urtean behin etortzen zen inspektorea. Galderak egiten zizkieten ikasleei zer ikasten zuten eta beldurtuta egoten ginen oso. Falangeko galderak ziren. Ez ziren umeen maila neurtzera etortzen, irakasleek zer erakusten genuen ikustera etortzen ziren.

Hezkuntza erreforma iritsi zen gero.

Arantzak zituen arrosa izan zen baina egia da 1970eko erreformak aukera ekarri zuela jendeak kulturara salto egiteko. Hezkuntza 6-14 arte derrigorrezkoa jarri zuen eta horrek aukera berdintasuna ekarri zuen.



1960ko hamarkadako eskola liburuak.



JULITA ESPARZA LASHERAS

1969TIK 1976RA ARESON IRAKASLE

"Ikasleek dena euskaraz egiten zuten eta nik ez nekien hitz erdirik ere"

Nafarroako hegoaldetik iparraldera, sekula ere entzun gabeko parajeetara iritsi zen Julita irakaskuntzari esker. Hogeita bat urte zituen Pitillastik joan eta Areson irakasle hasi zenean. Ez zen hasiera erraza izan, batez ere hizkuntza zuten muga, baina elkar ulertzea lortuta orotzape goxoak gordetzen ditu bertan lan egin eta bizi izan zen urteekin.

Noiz egon zinen Areson irakasle?

1969an hasi nintzen, hogeita bat urte nituen, eta 1976ra arte egon nitzen bertan, zazpi ikasturte denera. Hasierako urtean neska eta mutikoak banatuta egoten ziren, maisua eta maistra geunden. Baina

gero etorri zen 1970eko erreforma eta hasi ziren lege berriak indarrean jartzen. 1971tik aurrera, zaharrenak Leitzara joaten hasi ziren eta ni hamar bat urtera arteko neska-mutikoekin egon nitzen, denak elkarrekin izaten ziren nire gelan. Maisurik ez zegoen orduan. Gelan ikasle pila bat izaten ziren, hogeita seiren bueltan. Hala ere, orotzape ona dut Areson bizi eta lan egindako urteetaz. Gaztea nintzen eta orduan niretzat ez zegoen ezinezkorik.

Nolakoak izan ziren hasierako egunak?

Ni Pitillaskoa naiz eta ez nuen ordura arte sekula entzuna Areso bazenik ere. Iritsi eta denek euskaraz hitz egiten zuten

eta pentsatzen nuen: mutiko hauekin nola egin behar dut? Haiek dena euskaraz egiten zuten eta nik ez nekien hitz erdirik ere. Ez didate ezer entendituko pentsatzen nuen hasieran. Gogorra izan zen bai ikasleentzat baita niretzat ere. Egia esan, ez dakit nola egin genuen baina moldatu ginen eta elkar ulertzeko modua aurkitu genuen. Euskaraz hasi eta berehala ikasi eta oraindik ahaztu ez dudana *Aita gurea* izan da.

Non bizi zinen?

Patxikunean bizi nintzen. Egun guztia eskolan egoten nintzen, baina arratsaldeetan Leitzara joaten nintzen han irakasle ziren lagunekin egoteko. Sarrioko langileak bueltatzen zirenean etortzen nintzen bueltan Leitzatik Aresora.

Zer irakasten zenien ikasleei?

Ikasle txikiekin Mela izeneko kartilla erabiltzen nuen. Lehendabiziko urteetan entziklopediak erabili genituen, baina gero Villar Palasiren legea sartu zen indarrean eta hainbat liburu erabiltzen hasi ginen. Liburuak lortzeko Iruñera joaten nintzen eta han enkargatzen nituen ikasleentzat. Pixka bat denetarik erakusten nien historia, geografia, lengua... baina politika landu izana ez dut orotzen.

Aresoko eskola esanda, zer datorkizu gogora?

Eskola handia zen oso. Patio bat zegoen aurrean eta beste bat atzean, guk aurrean bakarrik jolasten genuen. Gogoratzen naiz ikasleekin errekreoetan brillean jostatzen nintzela. Gaztain erreka nola egiten genituen ere gogoratzen dut eskolan genuen estufan. Estufa Salamandra bat zen eta egur bila makina bat buelta egin behar izaten genituen. Bitxikeria bezala, gogoratzen naiz geranioak jartzen nituela leihoetan, hazi egiten zirela baina lorerik ez zuten ateratzen. Hotzagatik edo izango zen akaso. Eskolako ikasle askoren izen-abizenekin ere akordatzen naiz oraindik eta batzuen komunioko oroigarriak ere gordeak ditut. Aresoko eskolan egon ondoren, nire ikasle guztien izen-abizenak apuntatzen hasi nintzen, erregistro moduko bat eramateko eta horrela guzti guztiekin akordatzeko.

HAINBAT ARGAZKI



1. 1960 inguruko argazkia.
2. 1993an eskolako parkearen inaugurazioa.
3. Azpiko etxeko anaiak eskolan.
4. Garai bateko eskola barrutik.
5. 80ko hamarkadako bukaerako argazkia, orduko parkea eta patioa bitan zatitzen zuen paretan ikus daiteke.
6. 80ko hamarkadako hasieran eskolako ikasleak.





MERTXE AMONDARAIN

1985ETIK 1995ERA ARESON IRAKASLE

"Oso modu naturalean hasi nintzen klaseak euskaraz ematen"

Eskola errotik aldatu zuen irakaslea izan zen Mertxe. Berrikuntzen akuilu. Klaseak euskaraz eman zituen lehenbiziko irakaslea izan zen eta irakasteko modua ere aldatu zuen. Gauzak ongi egin zituenaren seinale da bere ikasleek Mertxeri buruz galdetuta eskaintzen dizkioten loreak. Pasioz egindako lanak fruituak ematen dituenaren adibide.

Nolatan hasi zinen Areson irakasle?

Donezteben hasi nintzen eskolan eta egun batean vespa hartu eta bikotea eta biok inguruko herrietara bisita egin genuen. Aresora iritsi ginen eta gustatu egin zitzaigun. Libre gelditu zen plaza bat eta

hartzea erabaki genuen. 1985eko irailean etorri nintzen, hogeita hiru urte nituen eta maistraren etxean jarri ginen bizitzen. Bertan bizi izan diren azkenengoak izan ginen. Hamarkada bat egon nintzen bertan lanean. Amei esaten nien: 'zuen etxeko berri zuek jakingo duzue gehiena, baina zuek eta gero nik'. Hainbat familitan bi edo hiru ume nire gelatik pasa ziren.

Irakasle bakarra zinen hona etorri zinenen?

Bai, lau urte edo bost egon nintzen bakarrik, gero etorri zen beste irakasle bat eta azkeneko urtean beste bat. Hamazazpi ikasle ziren, eskola unitaria zen eta



egurrezko berogailu bat zegoen erdian. Nik piztu behar nuen egunero sua eta a ze desesperazioa! Nire bizitza guztian su bat piztu ez nuena... Batzuetan ez-palak izaten nituen, baina beste batzuetan ez... Pentsa! Orduan hasten nintzen eginahalak eta bi egiten eta ez banuen asmatzen... umeek ikasi zuten hobea zela lasai uztea.

Eskola nola zegoen banatua?

Eraikinaren goiko aldean gela haundi bat zegoen eta beheko aldean egurra gordetzen zen. Gela bat zen, dena haundi-haundia, bi komunekin. Ni hemen nengoela eman zen aldaketa. Eskola zatitzeko ikuskaritza bat etorri zen eta zorte dezente izan genuen, hizketan hasi ginen eta esan genion gure asmoa izango litzatekeela hau egitea eta beste hau eta kontuan hartu zituzten gure eskaera guztiak. Obra egin bitartean udaletxean egon ginen. Gogoratzen naiz mahai zabal bat zela nire mahaia eta paperez ederki betetzen nuela.

Gogoan duzu anekdota bereziren bat?

Bai, ez dut ahaztuko lehenbiziko egunean nola etorri zen Olatxetako aitona bere bilobarekin, Olatzekin. Poz-pozik etorri zen eta esan zidan bera lehenengo aldiz eskolara bere aitona ekarri zuela eta berak ere halaxe egin nahi zuela bilobarekin. Berezia iruditu zitzaidan. Gainera, garai hartan gurasoak oso gutxitan etortzen ziren ikasleak eskolara laguntzera, bakarrik



Mertxe 2021ean bere ikasle izan zirenekin.

etortzen ziren etxetik, ez zen izaten oraingo konturik. Ez zait ahaztuko ere Ubideko Mertxek nola esaten zidan nire oihu guztiak entzuten zituela. Inspektorearen bisita zetorrenean ere gogoratzen naiz: 'denak zintzo!' izaten zen nire agindua eta ikasleek ederki betetzen zuten esana.

Gurasoekin zer moduzkoa zen harremana?

Herrian saltsa dezente zegoen garai hartan, inuxente hutsa nintzen ni gazte-gaztea eta ikasi nuen gauzak ez zirela horren errexak. Baina gurasoekin izan nuen harremana oso ona izan zen. Gainera, beraien eskuetan nengoen. Urtebete egin ondoren irakasle izaten segitzeko beraiek onartu behar ninduten.

Zer ikasi zenuen Areson?

Inprobisazio lan handia egin nuen hemen. Liburuetatik aparte nola erakutsi behar zen ikasi nuen eta gero Gipuzkoara joan nintzanean ikusi nuen nik intuitiboki egiten nuena liburuetan idatzita. Eskola txikia izateak proiektu bereziak aurrera eramateko aukera ematen zigun: masustak biltzera joaten ginen mermeladak egiteko, bertsoaritzaz landu genduen, Plazaolako trenari buruzko aldizkaria egin genduen, irrati programak egiten genituen eta etxez etxe joaten ginen grabatzera... Maskotak



Mertxe eta bere ikasleak 90ko hamarkadaren hasieran.

ere izan genituen ikasgelan: muxarrak, trikuak eta karakolak. Aurrerapauso teknologikoak ere iritsi ziren. Fotokopiadora lorpen handia izan zen, ordura arte kopiak egiteko gelatina berezi bat erabiltzen genuen. Ordenagailua erabiltzen ikasteko ikastaro bat ere egin genduen. Eta tranpa txiki batzuk egiteko aukera ere izaten nuen. Gimnasia ematea ez zitzaidan batere gustatzen eta gogoratzen naiz nire ordezkioak lortzen nituela. Mikel Baraibar, Leire ikaslearen anaia etortzen zen batzuetan nire ordezkioa ematera.

Nola hasi zinen klaseak euskaraz ematen?

Garai hartan hasia zen aldatzen hizkuntzaren kontua. Askatasun dezentea eman zidaten Hezkuntzatik. Gurasoei galdetu nien eta ongi iruditu zitzaizenez aurrera egin nuen. Oso modu naturalean emandako pausoa izan zen. Ez dakit oso kontzientziaz nintzen egiten ari nintzenaren garrantziaz. Zaharrenak alfabetatuta zeuden gaztele-raz, eta horiek segi zuten gaztele-raz. Hurrengoak hasi ziren euskaraz eta horrela segi zuten ondorengoek ere.



JOKIN BARANDARAIN TELLETXEA

Erlezaintzaren sekretuak

“Erleak ezinbestekoak dira gure inguruak bizirik irauteko”

Telebistan erleei buruz ikusitako dokumental batek interesa sortu eta arian-arian, erlezain bihurtu da Jokin. Duela hiru urte jarri zuen lehenbiziko erlauntza eta geroztik hainbat ordu eman ditu, jantzi zuria soinean, erleen sekretuak deskubritu nahian. Lanak fruituak ematen dituenaren seinale da, udazkeno biltzen duen ezti gozoa.

Nolatan hasi zinen erlezaintzan?

Erleei buruzko dokumental bat ikusi nuen telebistan eta harrigarria iruditu zitzaidan ikustea horren intsektu txikia zeinen inportantea den mundua aurrera joateko. Askotan fama txarra izan du erleak, ziztadekin lotzen da, baina jaten dugunaren %70 erleek polinizatzen dute. Gaiari buruz gehiago jakiteko gogoia sartu zitzaidan,

irakurtzen hasi nintzen Interneten, liburu bat ere irakurri nuen... eta erabaki nuen probatzea, erlauntza bat edo bi jartzea.

Baina, nondik hasi?

Teoria jakin arren zerotik hastea kostatzen denez Nafarroako Erlezainen Elkartearen izena eman nuen. Informazioa, aseguruak, materiala... lortzen da han eta ikastaroak ere

eskaintzen dituzte. Hogeita hamar orduko ikastaro bat egin nuen eta ezinbestekoa izan zen oinarri bat hartzeko. Azkenean erleak izatea, ganadua izatea bezalaxe da, ardiak edukitzea bezalaxe, eta kontuan hartu beharreko gauza asko daude.

Erlauntza jartzeko tokia aukeratzea izango da horietako bat.

Beti eguzki aldera begira behar du erlauntzak. Hego-ekia edo hegoa behar du. Eguzkiak ateratzen denean segituan jo diezaiola. Horrela, produktiboagoak dira eta iparretik babestuta gaitzak izateko arrisku txikiagoa dute. Berezia da jakitea erlauntza 36 gradutara mantentzen dutela beti. Beraiek erregulatzen dute beharraren arabera hoztu edo berotuz.



Zenbat erle mota daude?

Erlauntza batean hiru erle mota daude: erregina, erle langilea (emea) eta erlamandoa (arra). Bakoitzak ongi berezia du bere egitekoa. Erregina da guztien ama, bera da ernaltzen den bakarra. Gero erle langileak daude, erlauntzako gehiengoa izaten dira. Erlauntzako lan guztietaz arduratzen dira: argizaria egin, abarasketako gelatxoak erai ki, polena bildu eta pilatu, larbak zaindu, erlauntza zaindu eta garbitu... Eta bukatzeko erlamandoak daude. Horiek egiteko bakarra dute: erregina ernaltzea.

Erlauntza bat nola sortzen da?

Naturan erregina eta erle multzo bat elkarrekin baldin badaude, beraiek hasten dira erlauntza osatzen. Erle langileak argizaria sortzeko glandulak dituzte eta abaraska sortzen joaten dira. Behin abaraska sortuta dagoenean arrautzak jartzen hasten da erregina, beti borobilean. Egunean 1.500-2.000 arrautza jar ditzake, baina abaraska bakoitzean arrautza bat doa.

Erlauntza osatzeko prozesua azkartzen duzu zuk.

Argizari naturala erosi egiten dut eta horrela lana aurreratu egiten diogu. Prestatua dago zuloekin, landu bakarrik egin behar dute. Ez dute zerotik hasi behar. Arkitektoen parekoa da egiten duten lana. Hexagonoa izatea ez da kasualitatea, tokia ahalik eta gehien aprobetxatzen dute horrela.

Erregina bakarra da baina ez da betiko?

Ez, hirugarren urtean erlauntzako erregina aldatzen dute normalean. Erlauntzan dagoen erle langile bat aukeratzen dute eta jalea-erreal ematen diote jateko hamasei egunez. Erle handiagoa bihurtzen da eta gainera ernaltzeko aukera izango du aurrerantzean. Aldaketa horretan ere esku hartu dezakegu gizakiok. Pentsatu urtebeteko erregina daukadala. Bitan banatu dezaket erlauntza. Erregina bat atera eta erregina falta dela ikusita, arrautza jarri eta behartu egin daiteke aldaketa.

Hainbat ezti mota daude. Nola loritzen dira?

Erleek lorez lore biltzen dute nektarra, hau irentsi, eta ondoren behin digestioa eginda ezti botatzen dute abaraskako gelatxoetara. Lore jakin bateko ezti egin nahi baduzu, loraldiak ongi kontrolatu behar dituzu. Gaztainaren ezti egin nahiko banu, noiz loratzen hasten den kontrolatu eta kaxa bat jarri beharko nioke. Erleak hor hasiko lirake lanean eta gaztainen loratzea bukatzean kaxa hori kendu beharko nuke. Loraldiarekin hasi eta bukatuko litzateke erlauntza horretako lana. Hemen nola mendi lorea den gehiena, mila-lorea egiten dugu gehienok. Erlauntza udaberriari jarri eta dena batera kentzen da irailan.

Erleak ezti eta eztena dio esaerak. Zenbat ziztada jasoa zara?

Joanaldiko bizpahiru bai. Trajea batzuetan pasa ere egiten dute. Gaiztoak badaude, eguraldia, asko mugitzen badituz... lorez lore badabilta ez dute ziztatzen. Erlauntza babesteko, beren etxea defendatzeko duten modua da. Egun batean hogeita bost ziztadatik gora jasotzen badituzu, kontuz ibiltzeko esaten dute, pozoi asko delako. Babesteko edo jantzi zuriak eramaten ditugu, erlauntzaren kontrakoak beti kolore ilunekoak izan direlako: otsoak, hartzak... eta kea ere erabiltzen dugu erleak erlauntza barrura sar daitezzen. Kea eman eta pentsatzen dute sua dagoela kanpoan, orduan ezti betetzen dira eta barruan sartzen dira alde egin behar badute ere prest egoteko. Ez dira eraso egitera ateratzen.

Otso eta hartzez gain, azken urteetan izan da kalte handiagoa eragin dienik...

Liztor asiarrak ikaragarritzko kaltea eragin du. Horiei ezin die kontra egin erleak. Laguntzeko tranpak jarri behar izaten ditugu. Bi tranpa mota ditut, bat da udaberriko tranpeoa: bi litroko botila bati bi zulo egin, botilen puntak moztu eta barrura zerbeza beltza, ahabi zukua ta ardo txuriarekin egindako nahasketa botatzen zaio. Erlea ez da sartzen alkohola duelako. Liztorra zulotik barna sartu eta ez daki ateratzen.

Uda partean berriz, erlauntza babesteko tranpak jartzen dira eta udazkenean erregin berriak ateratzen direnez, orduan da garai ona, hurrengo urtera begirako tranpak jartzeko.

PATXI TOLOSA

Palazioko ataritik pasatzen denak badaki ateraldi bihurriren bat eta irribarre zabala izango dituela opari. Hantxe izaten da Patxi Tolosa begiak zabalik, belarriak erne eta mingaina arin, tarte goxo bat pasatzeko prest beti. Garai bateko kontuak eta gaur egungoak as-tindu ditugu berarekin eta, espero izango duzuen bezalaxe, badu zer kontatua.





Bizitza osoa Areson

1934ko urtarrilaren 6an jaio zen Patxi, "Iruñean jaio baina Areson bizi izan naiz beti. Ubiden 31 urtera arte eta Palazion gero". Lau senideko familia ziren: Kontxi, Mertxe, Patxi eta Anttonio: "bage-nuen beste mutiko bat, Gregorio, baina sei-zazpi hilabete zituela hil zen". Anaie-tan zaharrena izanik, berak egin behar izaten zituen etxeko eta kanpoko lanak: "abudo izaten zen oihua etxetik. Patxi hau egin edo bestea ekarri. Ni nintzen lane-rako zegoen mutil bakarra eta beharko egin!". Halaxe kontatu digu hamabi urte zituenean borda egin zutela: "masa nero-nek egiten nuen aitzurrarekin. Erdi-buztin erdi-lur antza aitzurrarekin mugitu, erre-katik ura ekarri, masa egin...". Eta ez zen hor bukatzen lana, harginari masa emanaz majina bat joan-etorri egin omen zituen: "ahuntze erabiltzen genuen horretarako,

atzea itxia eta aurea irekia zuen katxarro bat. Eskuleku bat izaten zuen bizkarrean hartzeko, bi sarderen gainean jartzen zenuen hura eta pala batekin bete eta harginari eman".

Baserriko bizimodua

Baserriak eman zien gerra denboran eta ondorenean bizitzeko behar zutena. Hala, goserik ez zutela pasa aitortu du: "nahi-koa arto eta banabar izaten zen. Talo asko janak gara baina goserik ez genuen pasa. Gaztain erreak ere bai. Morkoan gorde-tzen genituen eta ederki mantentzen zi-ren, ez oraingoak bezala".

Azienda eta animaliarik ere ez zen falta Ubiden: "oilok kalean libre ibiltzen zi-ren orduan eta behiak ere bagenituen". Behiak mendira eramaten zituztela ere kontatu digu: "beharko jan behar bazu-ten! Larre gutxi izaten zen, hemen dena

soroa izaten zelako. Artoa, garia, patata egin behar zelako. Hurrera arbia, bana-barra... Bistan genuen guztia soroa zen, orain dena berdea da eta sobra eta guzti!".

Setosoa izatearen saria

Patxi aipatu eta ezagutzen dutenei segituan etorriko zitzaizkien gogora bere ardiak. Ez zituen bada nahi ordurako lortu. Gogoan du berak zortzi urte zituenera arte ez zutela ardirik etxean: "Mañenera asko joaten nintzen, nola ziren gure parienteak, eta ardiak eta axuriak ikusten nituen han. Gustukoak nituen oso eta aitari beti atakatu egiten nion, erosteko eta erosteko. Azkenean hamabi ardi erosi zituen". Geroztik beti ibili izan da ardien bueltan: "orain ere oso gustuko ditut, baina ez naiz gauza. Alabari esaten diot nahi duzunean kendu, baina alabari ere gustatu egiten zaizkio nonbait".



Eskolara gutxi

Eskolako kontuez ere galdetu diogu eta askorik ez zela joan aitortu digu: "behien aurrerako norbaitek esaten bazuen, hara joan beharra zen eta ez zen hor bukatzen, gero etxeko lanak ere egin behar baitziren". Gaueko eskolan ikasi omen zuen zerbait: "Don Maximorekin ikasi nuen pixka bat". Klasean ikasitakoez bezain beste gogoratzen da klasetik aterata egiten zutenaz: "Gaueko eskola, eskolan izaten zen eta gero albidean egur batean, ze zalapartan ibiltzen ginela uste duzu... hamalau bat mutil. Alkozko ixkinako horretan bazen tubo bat eta tubo horretan marroa. Jo hara eta jo honea egur batean ibiltzen ginen eta libratzen bazenuen dena libre!".

Denetara lau maisu izan dituela ere kontatu digu eta ez du oroitzapen onik horietako batekin: "Ullate. Behin akordatzten zait, Patxikuneko Joxe eta biok baka-

rrik joan ginela eskolara. Atzeko pizarra bazen haundia eta harea eraman ginuzen bioi eta han jarri zion zerbaitere egiteko. Ez zekien egiten, ezta nik ere. Eta hartu zuen atzeko lepoko ondotik pizarraren kontra eta a ze danbatekoak! Danba eta danba eta danba. Eta ni pentsatuz, orain nerekin dek ba, nerekin da ba... harekin deskantsatu zen. Ni salbatu nintzen! Hura zen animali bat, gaiztoa zen hura".

Jolasak

Jostatze denbora gehiegirik ere ez zuten izaten: "sobra gutxi! Garai haietan badakizu zer zegoen". Batez ere, iluntzetan eta eskolako errekreio garaian ibiltzen ziren: "Koxkan aritzen ginen. Lauko txanpon bana hartu eta elkarren gainean jartzen genituen. Bost bat metrotik tiratzen zenion pila hari eta bertana zegoenak jokatzen zuen. Tira eta *cara* ateratzen bazen beretzat hartzen zituen, ez bazen ateratzen hurrengoak botatzen zuen".

Ederki gogoratzen da kobrezko txanpona horiekin: "laukoa, zortzikoa, sueldoa, pezta erdia eta paperean pezta, duroa eta hogei durokoa izaten zen. Hogei duroko ziren garai hartan. Laukoarekin ez zegoen askorik erosterik baina ttikiena hura zen eta galtzen bazenuen ere min gutxiago ematen zuen". Egunen batean zortzi-koarekin ere aritzen ziren eta bazuten irabazteko sekretua: "zortzikoa tira eta joan egiten zen igual. Txanpona zamatzeko eta motelagoa izateko trenari jartzen genion gainetik pasatzeko. Leitzako Ibiurko hortatik pasatzen zen eta hara lasterlean joaten ginen".

Hala ere, Aresoko eskolan jolas izarrik bazen hura *Fueraketan* zen: "pilotan ibiltzen ginen errekreoetan. Pilotak egiten artistak ziren Sutegiko Martin eta. Harizko pilota egiten zuten. Elkarren kontra aritzen ginen pilotan, galtzen zuena fuera, bi gelditu arte eta gero berriz ere denak egurrean".

Pilotan

Eskolako trinketeen ikasitakoak ez zituen baztertu eta gazte garaian pilotan dezentte aritutakoa da Patxi: "guk ez genuen pilotarako motiborik. Baserrian lepoa hausten aritu eta gero plazara pilotan aritzera? Aritu bai baina aritu bakarra". Mingainari tiraka, ordea, bestelakorik ere kontatu digu: "Joxe Saizar eta biok finalera ailegatu ginen. Goizuetan jokatu genuen Salaberria anaien kontra, galdu egin genuen, baina gogoratzen naiz jendea nola joan zen autobusean ikustera".

Iruñean ere jokatu zuen: "Salaberria anaien partez joan ginen Martikoneko Joxe Mari eta biok, Joxek bazuen zer bait ere. Errioxako txapeldunen kontra jokatu genuen, hogeita bana berdindu genuen eta azkenean guk irabazi". Pilotan nahi baino gehiago sufritzen zuela kontatu digu: "ezin nezakeen pilotan aritu, behatzak sensibleak nituen oso. Kontrarioak ikusitakoan esaten nuen: *nik hauei pilotan bakarrik arituta ere irabaziko nieke* baina gero pilotari ezin jo". Nostalgia puntu batekin oroitzen ditu garai batean plazan entzuten ziren pilota soinuak: "Areson orduan pilotan egunero hamasei bat mutil aritzen ginen. Orain ez da pilota soinurik entzuten. Leuna egoten zen plaza orduan, orain lakatz askoa egonen da". Egun osoan lanean aritu arren, ez baitzen pilotarako nekerik: "Burdina baino gogorragoak ginen garai hartan".

Kontrabandoko garaiak

Gaztetako kontuak aipatzen hasita, ezin isilean egindako batzuk esan gabe utzi. Areso mugako herria dela baliatuz, kontrabandoan ere ibili baitzen: "paketeak eramaten ibili ginen. Leizta eta Goizuetako mugan, Galbanon, hartzen genituen paketeak eta herrira ekarri. Pakete bat leku batean uzten zenuen egun batean, beste beste batean. Inork ez harrapatzeko. Ubideko baratzen, Alkozko soroan, Zapaitenean...". Ekartzen zuten materialaz galdetuta: "puntillak, nailona..." aipatu ditu. Hogeita hamabi kiloko paketeak izaten omen ziren, "baina ez ginen nekutzen. Bizkarraketan ohituta egoten ginen, saskiekin eta. Orain eman iezaiozu



gazte bati eta bizkarrean ez lukete eduki ere egingo".

Gauz ibiltzen ziren beti, "eta argirik ez piztu!" baina atzo balitz bezalaxe gogoratzen da bideetat: "Leitzako antena dagoen mendi hortan barna etortzen ginen Don Martinbordatik behera. Beste batzuetan Leitzako Izaietatik. Han gelditzen ginen, ez nekatuak geundelako, neurtzen aritzen ginen bizpahiru lagunaren artean hartuta. Denbora izaten genuen hortarako ere".

Hogeita metroko aldearekin ibiltzen zirela ere gogoratzen da: "alto eman ezker eskapo egiteko. Goizaldera ibiltzen ginela badakit handik etorrita ardieta joaten nintzelako goatzean sartu baino lehenago... goatzera noizbait ere edo batera ez. Libre zinen egunean!" gaineratu du barrezka. Berrogei duro irabazten zen paketea, "orduan dirua zen". Ez bere poltsarako, "dirua etxerako izaten zen. Ni ez naiz izan behin ere neronei gordetzekoa. Dena etxean uzten nuen eta gaur ere hala esango nuke".

Ezkonduta Palaziora

Hogeita zortzi urterekin ezkondu zen Ustakiñeneko Estherrekin eta bi urte Ubidean bizi ondoren Palaziora etorri ziren bizitzera: "Andreak letxeria eramaten segi zuen eta berak hartzen zituen hemengo esne guztiak. Fabrika kentzean denak lekutu ziren, behiak eta kendu zituen jendeak. Hogeita hamaika urte nituenean hasi nin-

tzen ni ere Leitzako fabrikari". Jubilatuta arte aritu zen fabrikari eta argi dio: "baserria miserablea zen, Leitzako fabrikari piztu gintuen". Hala ere, ez zituen baztertu azientak: "hogeita zortzi bat behor eta ardiak ere izan nituen. Frantses batek eraman zituen 19 behor edo, kaderatik edo minez hasi nintzenean".

Ehiza

Ehiza du beste afizioa: "aita zen pixka bat ehiztaria, usotara joaten zen tarteka. Nik beti gogoan izaten dut, mendi-belazea genuen orain laugarren postua dagoen tokian eta Zapaiteneako Luis eta nire aita jarri ziren han. Ni mutil koskorra, haiekin. Banda hasi zen kaxetan eta gogoan dut nola hiru aldiz kargatu eta deskargatu zuten". Bihurri gaineratu du: "usorik bota zutenik ez naiz akordetzen". Izan ere, orduan usoa pilaka pasatzen omen zen: "inork ez zion tiroa orain bezala botatzen. Hamar kartutxo, hogeita kartutxorekin joaten zen jendea eta etxean kargatu egiten zituzten. Orain kartutxoak sobra eta usorik ez". Usoez gain, erbietan ere asko ibili zen, baita basurdetan ere. Ez zaio berehalakoan ahaztuko Gereñoneko Luis Marik eta biek lau basurde bota zituztenekoa: "orduan ez zen basurderik izaten inguruan eta guk lau bota genituen. Larunbata edo izango zen, akordetzen naiz hurrengo egunean jendea meztatik aterata etxera basurdeak ikustera nola etorri zen".

Garai bateko Areso

Bizimodua hain azkar aldatzen ari den garai honetan, ariketa polita da aspaldiko argazkiak berreskuratu eta begiratzeari. Garai bateko irudiak dira, eta horien bitartez garai bateko herritarrek, etxeak, paisaia, janzkera, ohiturak eta beste hainbat gauza ikus ditzakegu arreta jarriz gero. Panpanoziri aldizkariaren aurreko 5 zenbakietan Garai bateko Areso atala osatu genuen, halaxe egin dugu 6. zenbaki honetan ere, denon gozagarri izanen delakoan.



Mantrolan, San Pedroak ospatzen, 1982an.



Arraiago ondoan.

Arg.: Irigarai Alduntzin familia.



1970. hamarkada inguruan, Antonio eta Jose sokatiran plazan.




1990. hamarkadaren hasieran Lagun Artea plazan inauteriak ospatzen.



Gregorio Pellejero.




Neska laukotea sanferminetan zapi gorria jantzita.



Arg.: Nicolás Ardanaz.
Nafarroko Museoko bilduma. Iruñea.

Praxku Mañeneko angelusa errezatzen, zapela kenduta.



San Pedro eguneko prozesioa 1980. hamarkadan.



Etxeberriko familia.



1960. hamarkada inguruan herriko gaztetxoek Jaunartze handia.



Emakume dotore bat.



Lontxo eta Frantzisko festetan plazan.



1960. hamarkadako ezkontza.



Txilleneko Emilia ezkontza egunean aitarekin.



Maiatzeko loreak, 1970. hamarkadan.

Denboraren atzaparretan galduak



XX. mende erdialdeko maleta.

Argazki zaharren atal berri honetan, maleta hartu eta denboran atzera bidaiatzeko gonbitea egiten dizuegu. "Denboraren atzaparretan galduak" izena eman diogu.

Izan ere, denborak ahanzturara eraman dituen zenbait tresnekin topo egingo dugu bertan.

Tartean, gure arbasoengandik jasotako atsotitzen bat ere ikusiko duzue.



UZTARRIA (Uztarrie)

(Idi para lepotik lotzen duen egurrezko lanabesa)

Lanabes honek utzi digu atsotitzen bat ere, hona hemen adibideetako bat. "Biak, uztarritik lotuta ibiltzeko modukoak dira".



IGITAIA (Itaie)

Uzta biltzeko edo belarra ebakitzeko erabiltzen den lanabesa.



KAXOLETA (Kazueleta)

Igitaiarekin lan egitean eskuetan minik ez hartzeko erabiltzen den zurezko babesgarria.



AKULUA (Akullue)

Makila luze eta buru-eztenduna, gurdi abereei eragiteko erabiltzen da.



LEPOKOA (Kollarona)

Uhalak minik egin ez dezan, abereen lepoan jartzen den larru edo kautzozko lepokoa.



TIRAPERRA

Abereak paretetan lotuta uzteko erabiltzen den burdinezko eraztuna.

Aresoko eskolako oroitzapenik edo anekdotarik gogoratzen duzu?



DOMINGO ZUBILLAGA

Aresoko eskolan pasatako urteak maitasun bereziz gogoratzen ditut. Oso baliabide gutxiarekin, gauza asko egiten genituen eta "egite" horri sekulako garrantzia ematen diot gaur egun. Gelan genuen "casette"

txiki batekin Matxain irratiaren izeneko irratsaio bat egiten genuen, guretzat sekulako esperientzia zen, benetako esatari sentitzen ginen eta asko gustatzen zitzaigula oroitzen dut. Aldizkariak ere egiten genituen, pare bat baditut gordeak. Herriko istorioak, jende helduari elkarrizketak, ipuinak...denetik izaten zuten. Gelan bertsoak eta euskal kantak ere nola ikasten genituen gogoratzen dut eta orduan ikasitako abesti eta bertso zahar batzuk gogoratzen ditut: Galtzaundi, Bautista Bazterretxe, Andaluzaren pareta... Astelehenetan korroan jarrita asteburuko bizipenak nola kontatzen genituen ere bai, hau gaztelaraz egiten genuen. Oraindik buruan ditut, lagunek ere bai seguru, orduan esandako batzuk. Umeak ginenean gaztelaraz ez genuen batere egiten (zorionez ohitura hori mantentzen dugula esan dezaket, agian orduan ikasitakoei esker) eta gure hizkeran nabari zen hori. Beste gauza asko ere badituz buruan: eskulan tailerrak, ostiral arratsaldeetako erlaxazio saioak, Lau Anaia antzerkia prestatu eta inguruko herrietan antzeztu genuenekoia, zenbat kostatu zitzaigun herensugea pintatzea! Baina batez ere, eta horretaz helduagotan konturatu naiz, gauzak "egiteak" duen garrantzia, hori da Aresoko eskola eta gure irakasle zen Mertxek oparitu zidan irakasgai garrantzitsuenetako bat.



ZURIÑE GOIKOETXEA

Nik Aresoko eskolan beti ezagutu dut behean gelan bat eta goian bi. Nire garaian eskolan guztira 20 ikaslara ez ginen iristen, gu zaharrenak ginenean 17-18 ikasle ginen. Haur hezkuntzan beheko

gelan egoten ginen eta behin lehen hezkuntzara pasatzean goiko solairura igotzen ginen. Dena den klase batzuetan, tartean ingelesekin ematera beheara jaisten ginen. Han aluminiozko armairu handi bat egoten zen, telebistaren armairua. Armairu sekretu bat bezala zen beti, giltzatua egoten zen eta gu gogoz egoten ginen, opari baten gisa, ea aukera noiz izango genuen ireki eta bideoak ikusteko. Bost eta seigarren mailan berriz nire adineko bostak eta Josune ginen gelako taldea, seiak batera egoten ginen, eta gainera eskolako zaharrenak ginen. Momentu horretan "Solo en Casa" pelikula ateratzen ziren eta gu beheko solairura pasatu ginen klase ematera. Eskolako zaharrenak izateak ematen duen bihurrikeri etapa hasi genuen eta zer okurrituko eta Solo en Casa egitea pentsatu genuen eskolan. Beheko pisura jaisteko zeuden eskaileretan tranpak egiten hasi ginen, zelo transparentea hartu eta eskaileretan alde batetik bestera jartzen genituen eta itxoiten eta barrez lehertuta egoten ginen gordeta ea irakasleren batek zerbait egiten zuen.



AITOR ARTOLA

Aresoko eskolan ibiltzen ginenean, udazkena iristen zenean atzekaldean pilongak egoten ziren. Nik oroitzapen politak ditut nola ibiltzen ginen pilonga handienak ibiltzen eta etxetik gure raketak ere eramaten genituen, pilongak hartu eta ahalik eta urrutien botatzeko.



PEDRO BELAUNZARAN

Hasiera batean ikasle guztiak gela bakaurrean Mertxe irakaslearekin egoten ginen. Eskolaren erdian estufa txiki bat egoten zen eta ikuilu zaharretik egurrak ekartzeko lana elkarbanatzen genuen. Eskola zaharrean neguan hotza handia izaten genuen, eta

estufaren bueltan eskuak berotzen egoten ginen.

Eskolatik etxera joan aurretik, berokiak hartu eta gelara sartzen ginen, txikienetik handienara ilaran jarri eta baimena ematen zigutenean denak banan-banan ateratzen ginen.

Aresoko eskolan egiten genituen irteerez oroitzapen onak ditut. Hasiera hartan, hainbat herritako haurrekin elkartzeko ginen, esaterako Ezkurra, Eratsun, Saldias, Zubieta, Ituren... Nafarroako hainbat txoko ezagutu genituen! Denborarekin hori aldatu egin zen eta azkeneko urteetan beti Ezkurako ikasleekin Bertizera joaten ginen.



JOSE MARTIN ONSALO

Gu hasi ginenean neskek eskola batera joaten ziren eta gu, mutilak, beste batera. Goizetan, zerrendaren arabera bi edo hiru ikasle egur bila joaten ginen Patxikunera, gure irakaslea zen Julita Esparza etortzerako sua pizteko. Egurra ere gurasoek ekartzen zuten eta moztu ere beraiek egiten zuten.

Garai hartan eskolara lehendabizi baserrietan bizi ginenak joaten ginen. Nire kasuan ni eta nire arreba Txuineko hiru ahizpekin elkartzeko ginen eta bostak elkarrekin jaisten ginen laster txikian. Goizetan jostaketan ibiltzen ginen eta goiz batean, ijitoaren semea agertu zen. Orduan ijitoak ibiltzen ziren herrian, egurra botatzera etortzen ziren. Ijitoaren semeak labana ateratzen ziren Txuineko hiru ahizpei eta gero, Fraxkuneko Fraxkuk bidali egin zituen herritik.


BASERRIEN LABERINTOA

Denbora pasa honetan, goikaldean auzo izenak ikusiko dituzue, behekaldean berriz auzo horietan dauden etxe, borda zein baserri izenak. Azken horiek txukundu eta auzoka elkartu beharko dituzue eta bidexka jarraituz bakoitza bere auzoarekin lotu.

URRIZPIALDE

OLARTE

ITTURRIETA



Three sets of horizontal lines provided for writing the names of the farms (etxe, borda, baserri) corresponding to the maze paths.

Txuinea
Sastizar

Eberrea borda
Santurua

Garaikoetxea
Kortatu

Garroko borda
Telleriko borda

Alkotzenea

Erantzun zuzenak: URRIZPIALDE: Sastizar, Santurua eta Telleriko borda. OLARTE: Txuinea, Santurua eta Telleriko borda. ITTURRIETA: Garaikoetxea, Kortatu eta Alkotzenea.


GURUTZEGRAMA

HORIZONTALLEAN

- 2. Atxurrarekin errotik ateratako lur zatia
- 4. Animalia zein pertsonen barruko organoa
- 6. Lurra zapaltzeko lan-tresna

BERTIKALEAN

- 1. Animaliei jaten emateko ontzia
- 3. Urdaiazpiko
- 5. Ehun metro karratu



Erantzun zuzenak: 1- Ganbela, 2- Zotal, 3- Fernil, 4- Gibelerrai, 5- Area, 6- Alper.

MOTZEAN

Iñaki Galarraga



- 1. Goizetan, alarmak jotzean, lehendabizikoan altxatzen zara edo bost minutu gehiago behar izaten dituzu?**
Bost minutu behar ditut.
- 2. Sukaldean zein plater ateratzen zaizu hobekien? Eta okerren?**
Hobetoena oilaskoa labean eta okerrena azpizuna Wellington erara
- 3. Zein musika estilo ezin duzu entzun?**
Flamenkoa.
- 4. Zure ustez, zein da Aresoko txokorik ederrena?**
Axuxte ingurua.
- 5. Umea zinenean, zer izan nahi zenuen handitan?**
Hegazkineko pilotoa.
- 6. Zerk sutzen zaitu? Eta lasaitu?**
Gauzak ez bilatzeak sutzen nau eta etxera iristeak lasaitu.
- 7. Etxean zaudenean etxeko zapatilak edo oinutsik ibiltzea duzu nahiago?**
Udaran oinutsik eta neguan etxeko zapatilekin
- 8. Miresten duzun pertsona bat?**
Nire ama.
- 9. Zer da zuretzat parrandarako onena: garagardoa, kalimotxoa edo konbinatuak?**
Kalimotxoa.
- 10. Beste herri batean bizi behar bazenu non biziko zinateke?**
Iruñean.

Maidier Barandarain



- 1. Goizetan, alarmak jotzean, lehendabizikoan altxatzen zara edo bost minutu gehiago behar izaten dituzu?**
Lehendabizikoan, bestela...
- 2. Sukaldean zein plater ateratzen zaizu hobekien? Eta okerren?**
Nola edo hala denekin txukun moldatzen naiz baina hobekiena gazta tarta ateratzen zait.
- 3. Zein musika estilo ezin duzu entzun?**
Rock-a.
- 4. Zure ustez, zein da Aresoko txokorik ederrena?**
Ulizarko kaxkoa.
- 5. Umea zinenean, zer izan nahi zenuen handitan?**
Soinetako irakaslea.
- 6. Zerk sutzen zaitu? Eta lasaitu?**
Jende egoistak sutzen nau eta lasaitu mendi buelta batek.
- 7. Etxean zaudenean etxeko zapatilak edo oinutsik ibiltzea duzu nahiago?**
Beti zapatiletan.
- 8. Miresten duzun pertsona bat?**
Nire izeba.
- 9. Zer da zuretzat parrandarako onena: garagardoa, kalimotxoa edo konbinatuak?**
Momentuan Ginkas-a eta hurrengo egunera begira Radler-a
- 10. Beste herri batean bizi behar bazenu non biziko zinateke?**
Isaban.